

# Juan Garmendia Larrañaga


## Beti ortodoxoak ez diren konjuruak

Javier Juanes-ek irudizkatuta



27

Juan Garmendia Larrañaga Bilduma



**2000.** Conjuros no siempre ortodoxos = Beti ortodoxoak ez diren konjuruak / Juan Garmendia Larrañaga . – Donostia : Txertoa, 2000. – Castellano, euskera

**2006.** Conjuros no siempre ortodoxos = Beti ortodoxoak ez diren konjuruak / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Miscelánea II.* – (Euskal Herria. Etnografía. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa; 9). – Donostia : Haranburu Editor, 2006. – Castellano, euskera

## 2007

---

Beti ortodoxoak ez diren konjuruak / Juan Garmendia Larrañaga ; azala eta marrazkiak Nestor Basterretxea ; argazkiak Javier Juanes. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 54 or. : ir. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 27). – ISBN : 978-84-8419-112-4 – Autorearen biloba, Elisabet-i eskainitako edizioa.

---

### **Azala eta marrazkiak**

Nestor Basterretxea

### **Argazkiak**

Javier Juanes



## **EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES**

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56  
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: [ei-sev@eusko-ikaskuntza.org](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.org)

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga  
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulanguntzarekin

# Beti ortodoxoak ez diren konjuruak

Juan Garmendia Larrañaga

Orria

---

Kredituak	
Konjuroen praktikari buruzko gogoetak .....	5
Atzera begirako oharrak .....	9
<b>Beti ortodoxoak ez diren konjuruak</b>	
<hr/>	
Hodeipean ezkutatutako pertsonaia gaizto bati .....	19
Murumendiko Dama .....	20
Fraidearen aurka .....	21
Ez du indarrak .....	22
Konjurugileari deabrua agertzen .....	23
Herriko bi gizon konjurugileren elkarrizketa .....	24
Etsaia Zegaman .....	25
Konjuria buruz esatea .....	25
Petroleoarekin konjuratu .....	26
Konjuria eta harrak .....	26
Konjurugileak azaltzen du zenbat maitatzen zituen herri batzuk ..	27
Konjuria eta senide arteko harremanak .....	27
Konjurugileak azaltzen du bere nahia .....	28
Artzainaren berekoikeria .....	28
Izpiritu gogogaiztoko konjuria .....	28
Emakume baten konjuria .....	32
Aralarko artzainak eta konjurugilea .....	32
Ermittauaren konjuria .....	32

Sakristauaren konjurua .....	33
Eskekoaren konjurua .....	34
Elosun ezagutu den konjurua .....	34
Konjuruaren eragilea .....	35
Nekazariaren konjurua .....	35
Estolak dardar egin behar du .....	35
Konjurua eta benenoa .....	36
Katuak eta konjurua .....	37
Konjurugileak zapata botaz zerua garbitu .....	37
Harrijasa itsasora .....	38
Barrika batek harrijasa jasotzen du .....	38
Konjurugilea etsaiaz gogoratzen da .....	38
San Migel aingerua eta konjurua .....	39
San Migel, sagu santua .....	40
Lakuntzan otoitz-eskaera .....	40
Otoitza .....	40
Harri jaia .....	40
Harrijasa eta San Antonio eguneko jaia, Aldaban .....	41
Bere soroa eta andrea oroitzen dituen konjurugilea .....	42
Konjuruaren sinesmen gutxi .....	42
Konjuratzeaz artzain baten erantzuna .....	43
Lehortea dela eta bi jokaera .....	43
Konjurugilearen urrun egizkotasuna .....	43
Konjuruaren urrun egizkotasuna .....	44
Konjurugileari ordainketa .....	44
Konjurugileari ordainketa .....	45
Gari bedeinkatzea .....	45
Nekazari eta arrantzale bat San Tiburtziori mintzatu zitzaion .....	45
Errazkingo apaiza eta bera patata-sorora .....	46
Santuari aurpegia garbitu .....	46
Errogatiban santua uretara .....	47

Santua uretara .....	47
Santua errekan .....	48
Karegilea eta errogatiba .....	48
Tarazona, Asiain (Cendea de Olza), Etxarri Aranatz eta Narbajako teilaginak .....	48
Errogatiba eta Ataungo baserri bateko morroia .....	49
Errogatiban sinesmen gutxi .....	49
Konjurua nekazarien nahia betez .....	50
Konjurugile apaiza eta akolitoa .....	50
Amabirjinari aurpegia garbitu .....	51
Errogatiba eta Untzurrungo apaiz suminkorra .....	51
Errogatiban aita baten buru haustea .....	51
Errogatiba eta oti-izurria .....	51
Ekaitza urruntzeko .....	52
San Bartolomeren dohaia .....	52
Eguzkiaren eta uraren sinbolismoa errogatiban .....	52
Saguen konjurua .....	53
Imizkoz herriskako gizon baten konjurua .....	53
Irurozkiko apaizaren exortzismoa .....	54
Ekaitza konjuruaren mende .....	54
Tolentinoko San Nikolasen ogitxoak .....	54

## Konjuroen praktikari buruzko gogoetak

---

*«Téntere nublo, ténte tú  
Los ángeles van con tú  
Si eres agua, ven aquí  
Si eres piedra, vete allí...».*

José M<sup>a</sup> Iribarren  
*Estampas tudelanas*

Exortzismo edo konjuroez hitz egiten dugunean, gogoan izan behar dugu jende gehienak ez duen boterearen jabe den apaizaren parte hartzea eta eragina. Hitzaren esanahi zabalean esango dugu apaiza, eta esan beharrik ez dago, gure artean, erlijio katolikoaren apaiza izango dela. Nahiz eta ez dudan uste beharrezkoa denik, lerroon bidez ohartarazi nahi dut lan honetan erredu moduko konjurua bildu dudala, hots, jendeak bildurik egiten dituen erredu-teak ere.

Julio Caro Barojak ohartarazten duen moduan, zer edo zer lortu nahi duen pertsonaren eta helburu duen gauzaren artean hirugarren bat agertu ohi da maiz, batzuetan aztia edo sorgina, besteetan apaiza<sup>1</sup>.

Garai batean gure artean oso sentitua eta gordea izan zen konjuruaren erritoaz, salbuespen batzuk izan ezik, ia ez zaigu oroitzapen ahul eta nahasi bat baino geratzen. Esan beharra daukat bilduriko konjurua Elizak berak ezarritako exortzismoa dela, eta, apaiz batek eginda, edozein arrisku edo erasotik libratzen gaituela.

---

1. Caro Baroja, Julio. *Las brujas y su mundo*. Alianza Editorial, (2. argitalpena), 1966, 41. orrialdea.



Ekaitza



Magiazko mundua



## Atzera begirako oharrak

---

«Unzue — 1614

D. Martín de Armendariz, beneficiado de Unzue, reclama a Fernando de Armendariz, vecino del mismo, la limosna de cincuenta misas que había celebrado por D. Pedro de Armendariz, difunto abad de Guerendiáin; además le reclama, como jurado, dos ducados por conjurar y bendecir los campos»<sup>2</sup>.

\* \* \*

«Vidania — 1613

El Sr. Fiscal contra D. Domingo de Chinchurreta, beneficiado de Vidania, acusándole de andar comiendo y bebiendo en mesones y tabernas; además, teniendo obligación de conjurar los nublados, no quiso hacerlo un día en que fue requerido a ello (...)»<sup>3</sup>.

\* \* \*

«Arruazu — 1617

El Sr. Fiscal, junto con el merino, jurados y vecinos de Arruazu, contra su abad D. Martín de Assiain, acusándole de prolongadas ausencias de la parroquial, por lo cual no hace los conjuros; a ello achacan el que haya caído un rayo que incendió una casa; además tienen que llamar a sacerdotes vecinos para que ayuden a morir cristianamente a los enfermos; finalmente dicen que el abad ha cambiado de sitio el agua bendita y no quiere subir en procesión a San Miguel (...)»<sup>4</sup>.

\* \* \*

---

2. Iruñeko Elizbarrutiaren Artxiboko katalogoa -4-. Prozesuak Saila - 1611-1622. 542. Unzue -1614-. José Luis Sales Tirapu. Isidoro Ursúa Irigoyen. Nafarroako Gobernua. Trebiñu Idazk. C/253 -11. alea-, 18 orri.

3. Iruñeko Elizbarrutiaren Artxiboko katalogoa -4-. Prozesuak Saila - 1611-1623. 549. Vidania -1613-. José Luis Sales Tirapu. Isidoro Ursúa Irigoyen. Nafarroako Gobernua. Trebiñu Idazk. C/253 -18. alea-, 70 orri.

4. Aurreko Erref. -4-. 1.073. Arruazu -1617-. Trebiñu Idazk. C/268 -7, alea-, 188 orri.

Udallerriak, erakunde moduan, beharrezkoa jotzen zen konjurua egin zedin izaten zuen ardura. 1556ko ohar baten bidez badakigu Tolosako Udalak Julian Luzuriagari hiru dukado ordaintzeko agindu zuela, hodeiak konjuratzeko izan zuen ardura zela eta. Aipatutako hirian bi konjurugile izan ohi ziren garai hartan, eta handik urte askotara ere bi izan ohi ziren, baina noiz-behinka, bat baino ez zuten izendatzen.

«Pitillas — 1604

El alcalde, jurado y concejo de Pitillas, contra D. Pedro de Abaurrea, vicario perpetuo de la misma, pidiendo sea compelido a decir misa por el pueblo todos los días (cantada los sábados y domingos y rezada los restantes). Asimismo los demandantes pretenden que el vicario ha de conjurar los nublados, como se ha hecho siempre, sacando la imagen de Ntra. Sra. a la puerta de la iglesia. Al vicario se le había aumentado el salario y emolumentos, que alcanzaban a cerca de 200 ducados. La sentencia le obliga a misa diaria por el pueblo y a conjurar los nublados de día y de noche. Testigos»<sup>5</sup>.

\* \* \*

«Irungo Unibertsitatearen Akordioen hirugarren liburua aztertu eta 1694. urteaz jartzen duena irakurtzen badugu, Irungo udal agintariak beren parrokian konjurugile bat izatea erabaki zutela jakingo dugu. Hau da, otoitz berezi batzuen bidez ekaitzak eta hodeiak uxatzeko eliz-gizona, uste baitzen eguraldiaren goraberak infernuko etsaiak sortu eta gidatzen zituela»<sup>6</sup>.

\* \* \*

Tolosan, 1737ko maiatzean, Santa Maria parrokiako bi apaizek konjurugile izateari uko egin zioten, eta exortzismorik ez zegoenez, harri-jasak baratzeak eta soroak txikitzen zituen<sup>7</sup>.

Hori zela eta, bi fraide hartu zituzten konjurugile lanetarako, baina horrek aipatu elizako erretorea erresumindu egin zuen, bai baitzituen beste bi apaiz eginbehar hori betetzeko prest. Uste dut jarraian bilduriko testua horren guztiaren argigarri dela.

«Obligación de conjurar:

Y asimismo ordenaron y decretaron, todos unánimes y conformes, que por cuanto la experiencia ha mostrado la mucha necesidad que hay de conjuradores

---

5. Iruñeko Elizbarrutiaren Artxiboko katalogoa –3–. Prozesuak Saila – 1598-1611. 671. Pitillas– 1604. José Luis Sales Tirapu. Isidoro Ursúa Irigoyen. Nafarroako Gobernua. Garro idazk. C/192 –7. alea–, 102 orri.

6. Rilova Jericó, Carlos. *Brujería en la comarca del Bidasoa. El problema de la incredulidad en el siglo XVIII*. Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria, «Luis de Uranzu» Kultur taldearen Aldizkaria. 16. alea, 1998ko ekaina, 85 orr. Argitalpen horretako 88. aipamenean, egileak bibliografiari buruzko beste bi erreferentzia eskaintzen ditu konjuruaok direla eta.

7. Tolosako Udal Artxiboa.

en las ocasiones de las nubadas y tempestades que suelen sobrevenir para conjurar; y por ello y por lo que los señores Cura, Tenientes y Beneficiados de la Parroquial de este dicho Valle, aunque lo hacen al presente, dicen que no tienen precisa obligación sino de caridad; y el dicho Valle insistir en que lo han de hacer precisamente, sobre lo cual pudieron redundar muchos daños de piedra en los frutos pendientes, y también diferencias entre ambos Cabildos. Por lo cual de la misma suerte se suplique también que los dichos cinco beneficios del Curato, Tenientía y los tres primeros que vacaren, sean también con el gravamen de conjurar desde el día de Santa Cruz de Mayo hasta el día de Santa Cruz de Septiembre de cada un año perpetuamente; y para ello haciendo lo que puede el dicho Valle, se le suplique al dicho Señor Obispo y demás Jueces se sirvan de confirmar este Decreto; y para el efecto se les da el mismo poder y facultad que en el Capítulo precedente. Y así lo dispusieron, ordenaron y firmaron los siguientes; y en fe de ello yo el dicho escribano Sebastián de Aristizabal; Matías de Oyarzabal; Ignacio de Macuso; Francisco de Isasti; Sebastián de Portu; Jorge de Aranguivel; Ignacio de Olaizola Arbulu (...)<sup>8</sup>.

\* \* \*

Xedapen zahar hori irakurrita –bertan biltzen da maiatzeko Gurutze Santuaren egunetik iraileko Gurutze Santuaren egunera konjuruak egin beharra–, gogora etorri zait Arabako Done Bikendi Harana herrian egin izan den mayo-



Baserriak mendiaren babesean

---

8. Oartzungo Parrokiako Artxiboa: «Ordenanzas del Noble y Leal Valle de Oyarzun». 1755 urtea. «Copia de las confirmadas el año 1536». Beste honetan ere sartzen delarik: «Ordenanza para la presentación de la vicaría y beneficios de la parroquial de este Noble y Leal Valle de Oyarzun, hecha el año pasado de 1574 y confirmada el año pasado de 1688, como consta del Registro del Valle». 126-127 orriak.



ren altxatzea. Mayoaz behin baino gehiagotan arduratu naiz, eta horiei buruzko lanetatik bakar bat izendatuko dut, El Mayo, los Maios y las Mayas (Anuario de Eusko Folkloren bildua, 31. tomoa, 1982-83. 103-106 or), baina aipagai dugun kontu honetarako uste dut egokiena Done Bikendi Haranean jasotzen den mayoa dela, eta, jakin nuenaren arabera, konjurua gordetzeko modua baino ez da.

Oro har, Harana bailarako herri honetan jartzen den mayo-a pagoa da. Zuhaitz zuzena, bizpahiru auzok moztua. Berauentzat erritua da maiatzaren 3ko goizean –Gurutze Santuaren aurkikuntza ospatzen den egunean– mozketari egitea. Zuhaitza herrira garraiatuta, hiru lagun hauen eginbeharra adarrak moztu, arbastatu eta enborra garbitzea da. Enbor hori herriko apaizak bedeinkatuko du.

Era berean, mayo-a altxatzea tradizio zaharrean bilduriko teknika baten arabera egiten da. Sokaz lotu aurrena eta ondoren sarde moduko batez baliatzen dira altxatzeko. Zutitu ondoren, horretarako berariaz egindako zulo batean sartzen dute. Ondoren, zulo hori harri eta lurrez beteko da. Ondo sendotuta egoteko, oinarria hiru oholen bidez indartuko da, horiek ere pago egurrez eginak.

Mayo-aren altxatzea Gurutze Santuaren egunean egiten da, iluntzean. Ekitaldi horri ekin aurretik, merienda bat ematen da, eta, horretarako, Done Bikendi Harana herriko familia bakoitzak ordezkaria izango du. Otorduaren inguruan, eta ikusle zaratatsu moduan ibiliko dira herriko umeak.

Mayo-aren goialdean makilaz egindako gurutze bat ezarriko da, eta bi bat metro beherago beste bat, azken hau argizariz egina eta eskopre edo xixel batez enborra zulatu eta bertan sartua. Argizarizko gurutzetik metro eskas batera, iltze batzuekin loturiko zapia dantzatzen du haizeak. Eta metro eta erdi beherago egurrez eginiko ikoroski edo guraizea, lau bat metrokoa, Done Bikendi Haraneko etxeren batean baliaide gutxirekin egina.

Irailaren 14an, Gurutze Santuaren Goralpenaren egunean, eta batere zeremoniarik egin gabe, mayo-a kendu egiten da. Egurra sutarako banatuko da hainbat auzokoren artean.

Halako errittoa betetzeko egunek, mayo-a jarri eta kentzeko alegia, argi erakusten digute tradizioak bat egin dituela mayo-a eta Gurutze Santua. Baina, horrelako eta bestelako kasuetan maiz gertatu ohi den moduan, oso berri gutxi esan ahal izan zidaten Done Bikendi Haranean errito honetaz. Eza-gutu nituen guztiak bat zetozen, ordea, mayo-aren botere magikoetan, euren ustez baliagarria baita uzta babesteko.

Done Bikendi Haranean oraindik ere gogoan dute urte batean mayo-a altxatu ez eta harriak euren lur-eremuak suntsitu zituela. Hori dela eta, herri horretan oso modu estuan loturik daude tradizio honi, bestela galdu egingo zen, beste hainbat herritan gertatu den moduan<sup>9</sup>.

\* \* \*

Goian idatzitakoan agertzen denaren arabera, konjurua nekazaritza munduari loturik dago eta naturarekin menpekotasun eta harreman zuzena duen mundu batera eramaten gaitu. Eta kontuan hartu behar dugu erregutzeko ohitura ez dagoela mugaturik leku edo garai jakin batera.

Euskal Herria aztergai harturik, Azpeitiari dagokion Nuarbe aldean bildu dudanaren arabera –auzo horrek parrokiarik ez zuen garaiaz ari naiz–, udaberrian, Urrestillako



Baserría eta aberea

9. Garmendia Larrañaga, Juan. «San Vicente de Arana. El "mayo"», *Euskal Esku-Langintzan. Euskal Artisautza*, V. alea, 139-151 orr. Auñamendi bilduma, 1975.



Txindoki eta bere misterioa

apaiz batek akolito batek lagundurik baserriz baserri egiten zituen konjuruak. Akolitoaren ardurapean, bi saski handi garraiatzen zituen astoa. Asto saski horietan haragia, arrautzak, babarrunak eta abar biltzen zituen apaizak konjuruaren ordain moduan. Adierazitakoaz gain, familia bakoitzak oilasko parea eramaten zuen konjurugilearen etxera, eta hala esaten zuten: «Konjuruaren partez, oilaskoak».

Nuarbetik gehiegi urrundu gabe, Matximenta auzoari ere ederki egokitzen zaio goian esandakoa, baina urteko bi oilaskoez gain, konjuru zela eta, baserri bakoitzak lau lakari gari ordaindu behar izaten zizkion. Konjuro garie deitzen zioten. Arrazoi berberetatik Beizamako Udaletxean bi lakari gari uzten ziren eta parrokiako kabiloak jaso ohi zuten. Langintza honetan laguntzaile zituenei apaizak afaria oparitzen zien bere etxean.

Joan gaitezen artzain herri batera. Gaintzan (Araitz bailaran), apaizak Mikel Deunaren eguneko goiza etxez etxe konjuruak egiten ematen zuten. Ondoan akolitoa zuela, eta urte luzetan ezagutu zuten ohiturari jarraiki, konjuru bakoitzeko dozena bat arrautza jasotzen zuten.

Udaberrian, artzaina goi mendietako larreetara abiatu aurretik, apaizak ardiei egiten zien konjuruak. Horretarako, artaldearen erdian jartzen zen eta laguntzaile zuten artzainak edo bere senideren batek bedeinkaturiko kandela pizturik izaten zuten.

Nafarroako Gaintzatic Gipuzkoako Gaintzara; Emeterio Sorazuk herri honi buruz idatzi zuen Monografian azaltzen du eguraldi txarra iragartzen zenean serora batek konjuria egiten zuela. Horretarako, bi teila artean San Juan sorko loreak edota bedeinkaturiko erramu-hostoak erretzen zituen. Bedeinkapen hau lau haizetara egiten zen, ur bedeinkatua jaurtiz eta ekaitza urruntzeko erregutuz.

Nire lan honetan errogatiba bidezko konjuria ere bildu dut, oso errotuta baitago urrun eta desberdin diren komunitateetan. Elizak hala aginduta urteko egun zehatz batzuetan egiten ziren erreguteei –Jaunaren Igokundea eta San Markos, adibidez– gehitu egin behar zaizkie aginte zibilak hamaika arrazoi direla eta –batzuk benetan xelebreak– ezartzen zituenak.

«1705, noviembre 28.— Madrid.

El rey pide a la Diputación que se hagan rogativas contra los enemigos de la monarquía»<sup>10</sup>.

«1794, agosto 10. — San Ildefonso.

El rey comunica a los Tres Estados, que se debían hacer rogativas en todo el reino, ante la invasión francesa, suspendiéndose durante las mismas todos los festejos públicos»<sup>11</sup>.

\* \* \*

Baina oraingo honetan bereziki bilduko du nire arreta komunitate batek bizi dituen aurkako eraginei aurre egiteko konponbidea bilatzen duen errogatibak. Aztertuko dudan kasuan, arrazoi horiek berezkozat joko ditugu. Oso joera harrigarriak ezagutuko ditugu, eta erlijio ekitaldi horretan parte hartzen dutenen artean kontrako interes arrazoiak azaleratuko dira.

Izan ere, edozein hondamendik –aipatuko den kasuan uraren eskasia da– berekin dakarren zoritxarra gainditzeko gogoak ekarri ohi dituen esanak eta ekintzak biltzeko garaian, nire berriemailearen arabera, aipagarria da Arabako Gebara herriko emakumezko batek behin eta berriro esaten zuena: «Zer ez ote dugu ikusiko, on direnen lur-eremuetan ere ez du euririk egiten»<sup>12</sup>.

Ez da dudarik egin behar askotan itxuraz formala dena ortodoxoa ez denaren hazia da, eta, entsegu honetako orrialdeetan ikusi ahal izango dugun bezala, konjuruak egitea horren erakusgarri da.

---

10. Nafarroako Foru Aldundia. Artxibo Nagusiko Katalogoa. Gerra Saila. Agiriak. 1259-1800 urteak, 178 orrialdea. Florencio Idoate, Nafarroako Artxibo Nagusiko Zuzendaria.


11. Aurreko erref., 422 orr.

12. Gebaran: Jesús León Roldán, 71 urte. 1998ko abuztuak 26.



Konjurua





Basoa ekaitza bitartean

## Beti ortodoxoak ez diren konjuruak

---

### HODEIPEAN EZKUTATUTAKO PERTSONAIA GAIZTO BATI

Behinola, Peruenea deituriko egoitzan, Goizuetako udaletxearen aurrean bizi zen Ezponda izeneko gizon bat, aginduzale beldurgarria, herriko jauntxoa.

Hil zen Ezponda: baina noizik behin presente irauten zuen bere zaldiaren ferra-hotsa zela medio. Zalduna eta zaldia ibiltzen ziren hodei ilun eta mehatxugarri batek ezkutaturik, eta horrek konjurua eskatzen zuen, noski, kalte-uxagarri.

Konjuru egitea eliza nagusiko apaiz batek egin ohi zuen eliza ataritik, eta arriskua zetorren aldera begira, ohiturak agintzen zuenez. Gauzak horrela,



Zelaiaren berde tartean, baserria

egun batez gertatu zen konjuruak ez zuela indarrak Ezponda misterioitsuaren estalgarri zen hodeia uxatzeko, eta hori ikusirik, apaizak bota zuen bere ezkerreko oinako zapata hodei zatar kezkarriaren aldera eta ber bertatik zerualdea argitu egin zen.

Beste batean berriz, konjuruak ez zuen eraginik izan eta apaizak gurutzeaz baliaturik, Mandoegiko leizezulora bideratu zuen ekaitza, Goizuetako lurretara.

Leize aurrean, apaizaren lagun batek linu hazi arroba erdia zabaldu zuen barrualdera begira gaitzetsiz, apaizak oihuka ziola: «Ale aña urteko!» Denbora hori kastiguz Ezponda barnean egon zedila adieraziz. Baina pertsonaia beldurgarriak bere hotsa entzunarazi zuen erantzunez: «Nik horiek ere beteko!». Orduz geroztik, aipatutako leizea, Ezponda deituraz ezagutzen da, eta ekaitzaldian, goizuetarrek honela diote bere jardunean: «Ezponda mugitu duk orain ere!»<sup>13</sup>.

## MURUMENDIKO DAMA

Murumendiko Dama airez izar baten antzera itsaso aldera pasatzen bazen eta uretan sartu, trumoi soinua sortzen zen. Honela gertatzen bazen, egun batzuetan eguraldi txarra izaten zen.

Santakrutzetatik Santakrutzetara –maiatzean eta irailean– egunero konjuru egiten zen, eta berdin beste egunetan ere urtean zehar eguraldi txarraren beldurrik bazen.

Murumendiko Damaren bizilekura, hau da, leize atarira joan eta konjuru egiten ohi zen. Orduan, Dama barruan harrapatuz gero, ekaitza ekartzeko ahalmena kentzen zitzaion<sup>14</sup>.



Baserriaren inguruan

13. Goizuetan: Ceferino Echeguía Berroeta, 63 urte, Paskoltzenea etxea. Eta Gertrudis Zubillaga Arrieta, 84 urte, Fuentenea etxea. 21 de septiembre de 1986ko irailak 21.

14. Beizaman: Juan Ignacio Eceiza Galarraga. 81 urte, Urki baserria. 1988ko urriak 2. Kontaketa honek burura ekartzen dizkit J.M. Barandiaranek bildutako hainbat kondaira; horiek hemen ageri dira: Eusko Folklore Elkartearen Urtekaria, 1921, 99 orr. eta Mari, o el genio de las montañas. Homenaje a D. Carmelo de Echeagaray, Donostia, Gipuzkoako Aldundiaren inprimategia, 1928, 264-5 or.



Natura

## FRAIDEAREN AURKA

Oiartzungo Legarre etxea komentua zen, bertan fraideak bizi ziren eta horietako bat Txanbenat (Jaun Benat) izenez ezaguna. Honek eta eliza nagusiko erretoreak elkarren arteko espak izaten zituzten.

Behin batean Txanbenatek esan zion erretoreari halako egun batean Iruñera joan behar zuela. Hau entzunik, erretoreak honela erantzun zion: «A, bai, ondo, ondo; bidaia ondo egin».

Txanbenati heldu zitzaion, bada, bidean jartzeko eguna eta une hartan jaun erretoreak konjuria egin zuen harrijasa fraidearen bizkarrera eror zedin.

Txanbenatek ikusi zuen eguraldi aldaketa eta laister igarri zion eraso bere buru gainean zuela, eta pentsatu zuen, hori, erretorearen lana zela inondik ere, eta etxera abiatu zen, baserri batean behi-larru bat eskatu ondoren. Eman zioten eta hura burutik behera jantzi eta zuzenean erretorearen sagastira joan zen. Sagastia loretan zegoen eta Txanbenat (Jaun Benat) arbola azpitik arbola azpira ibili zen sagar-lore denak txikituz.

Azio txar hau amaitu ondoren, berriro Iruñeko bidea hartu zuen eta itzultean erretorearekin topo egin, eta honek galdetu zion: «Ongi egin al duzu bidaia?», eta Txanbenatek erantzun: «Bai, oso ongi; eta zuk nola daukazu sagastia?», «A, ez dakit; aspaldi ez naiz izan eta!», «Ba, joan egin behar zenuke eta ikusi nola dagoen», erantzun zion fraideak.

Erretorea joan zen sagastira eta dena zeharo txikituta ikusirik, pentsatu zuen: «Horri –Txanbenati alegia– inork ez zioke peatzen!»<sup>15</sup>.

## **EZ DU INDARRIK**

Nire berriemaileak gogoan du bere aurrekoei entzun izana, andre edadetu batek guztien aurrean esaten zuela, bera hiltzean, zeuzkan diruak bere hilku-txan jartzeko.

Hil zen, bada, emakumea, eta herrian zabaldu zen familiakoek bete zutela haren nahia, behin eta berriz hark azaldua. Gauzak honela, asko luzatu gabe, gau batean hiru-lau herritar kanposantura joan ziren farola berekin zutela eta hilkutxa lotsa gutxiz miatu zuten, hilaren gorpua bai baina dirurik aurkitzeke.



Aizkorri

Egun berean erretore-etxean urteroko zerri-hilketa egin zuten, ohi zenez, jakineko kakotik zintzilika utzirik.

Ikazkin batzuek jakinik zerri hila kanpoan zegoela, utzi txondarra, herrira jaitsi eta gauez zerriaz jabeturik, zaku batean sartu eta mendira eraman

---

15. Erreterían (Zamalbide auzoa): Antonia Auzmendi Zuloaga, 74 urte, eta Salvador Yarzabal Berra, 87 urte, Lubeltza Berri baserria. 1989ko apirilak 9.

zuten, asmoz beren lantokira. Bere bidean zehar kanposantu ondotik igaro behar zuten, eta atsedean hartuz, utzi zuten horma kontra zeria zeramaten zakua (pareta alferrikakoagorik ez dela dio Valle Inclanek, hilen eta bizien arteko hori baino). Baina karga astunaz arindu bezain laster, konturatu ziren hilerriko bake isila hausten zutela mugitzen zen argi motel batek eta hitz-hots motel batzuek. Ikazkinek sinestu zuten mundu honetatik joandako bizidunak zirela eta azkar urrutiratu ziren handik, zeria bertan utzita.

Diru-bilatzailleak ere konturatu ziren bazebiltzala norbaitzuk inguruan, eta zelatariak izango zirela inondik ere; presaka alde egitean, ordea, ohartu ziren horma gainean bazegoela fardel bat, eta azkar ireki zuten zakua, zeria atera eta emakumearen gorpua sartu.

Eguna argitzean, ikazkinak bihurtu ziren lapurtutakoa berreskuratzeko asmoz, eta zakua beren txabolara eramane zuten, eta bertaratzean, hara non aurkitzen diren ustegabeko nahi ez zutenarekin; zaku barruan zerririk ez baina egun batzuk lehenago herrian hil zen andre zahar baten gorpua baizik. Ikazkinek azioa apaizaren gauza izango zelako susmoa hartu zuten eta iruzur egin zielakoan, itu ziren haren behorkumea inguru hartan larrean zebilela. Joan ziren eta menderatu zuten behorkumea eta bere gainean andre zenaren gorpua jarri zuten hanketatik ongi loturik.

Handik zehar zihoazen artzain batzuk, eta ikuskizun beldurgarri hura ikusita, agerpen baten lekuko zirela uste izanik, emakume ezagun ehortzi berriarena alegia, apaizari presaka joan eta berri eman zioten, konjurua egin zezala arren eskatuz, ikuskari hura desager zedin.

Apaiza kapa handiz jantzirik, bere behor ederrera igo eta abiatu zen eskatzen ziotena betetzeko asmoz. Baina, arestian esan dudanez, hildakoa gainean zuen behorkumea apaizaren behorrena zen hain zuzen. Apaiz gizarajoa han ari zen behin eta berriz konjuruka; baina behorkumeak bere amarengana jotzen zuen etengabe konjurugilea gaizki utzirik. Hori ikusita, apaizak etsi zuen ez zegoela han zer eginik, eta etxe aldera jo zuen lau-oinka bizian. Presakako erretira honetan behorkumeak bere amari zintzo jarraitu zion, eta apaiza etxera heltzean burua makurtu zuen ateburua ez jotzearren barrurakoan. Behorkumea amaren atzetik zihoan; baina hildakoak ez zuen bururik makurtu eta txerriarentzat jarria zegoen kakoan zintzilik geratu zen. Emakume hilak bere diru-gose eta berekoikeriaz, bi aldiz zerriaren ordezkotza egin behar izan zuten<sup>16</sup>.

## **KONJURUGILEARI DEABRUA AGERTZEN**

Ba omen zen harrijasaren kontrako konjurua egiteko ahalmen berezia zuen apaiza. Apaiz hau eguneroko bazkalondoko siesta egitera joan zen, eta bere neskamea, ikasia zegoenez, esnatzera joan behar izaten zuen laino

---

16. Donamarían: Eulalio Orbeago Arrieta, 69 urte, Suainea baserria. 1986ko irailak 7.



Prozesioa

beltz bat agertzen zen bakoitzean, harri-erasoaren adierazgarri. Laino beltza agertu zen eta bai neskameak apaizari deitu ere.

Apaizak berehala bere errituala hartu, estola jarri eta konjuru egiten hasi zen. Honetan, etsaia azaldu zitzaion esanez: «Horiek dira kanpo ederrak daudena! Horiek denak galtzeko zaldizko ederrak dauzkat nik!». Hau entzunik, apaizak erantzun zion: «Neuk ere badauzkat zure indar horiek geldiarazteko frenu ederrak!» Orduan etsaiak apaizari esan zion: «Ekar ezazu seinale bat»... Apaizak bere bi eskuak liburutik kentzeke oin bateko zapata bota zion deabruari.

Apaizaren konjuruak harrijasa mendirantz bidali zuen, eta harritartean konjurugileak deabruari botatako zapata ere azaldu zen<sup>17</sup>.

## **HERRIKO BI GIZON KONJURUGILEREN ELKARRIZKETA**

Ondoko konjuru Ormaiztegin entzun nuen. Apaizaren faltan, herriko bi gizonak, bata apaizarena eta besteak akolitoarena eginez, honela egin zuten konjuroa eliza atarian:

---

17. Tolosan (Usabal auzoa): Juan Cruz Errazquin Albizu, 82 urte, Soroa baserria. 1988ko urriak 30.

«Aitzkorri, Aralar, Trintxera Batallón, remisionem peccatorum nostrum, amen. Gaizto guztiak sar daitezela zeruan».

Akolitoak: «Eta onak?»

Apaiza izenekoak: «Demonio txotxoloa; onak lehen ere zeruan egongo dituk»<sup>18</sup>.

## **ETSAIA ZEGAMAN**

Ormaiztegin jasotako aurreko konjuruak asko irabazten du Ursuarango (Idiazabalgo auzoa) Lizardi baserriko Tomas Goikoetxeak emandako zenbait bitxikeriarekin.

Zegaman, egun euritsu baten ondoren, ubideko urek zuhaitz enbor belzteska zeramaten; zegamarrek enborra ikusi zutenean etsaiaren irudikapena zela pentsatu zuten eta apaizarengana jo zuten honelakoetan dagokion konjuria egin zezan.

Apaiza, ustezko etsaia ikustera hurbildu zen, baina han zeuden bizilagunei ohartarazi zien exortzismoaren aurkako otoitza egiteko libururik ez zuela. Orduan bizilagunek, lurretik intxaurrondo hosto batzuk hartu eta liburu itxurako irudia osatu zuten, orduan konjurugileak bere lanan ekin zion hitz hauek esanez «Inguru, inguru hontan, intxaur ostoa liburu».

Etsaia ubidean behera zihoan eta Zegama igaro zuen, honek ondorengo zurrumurrua sortu zuen: «Guk gurea egin diagu. Segurakoak egitea zeukatek eurena»<sup>19</sup>.

## **KONJURUA BURUZ ESATEA**

«Inguruz inguru, intxaur hostoa liburu. Salbate Sagasti Berri baserria eta Sagasti Berri Han baserria, matxikate Udabarro Mendia (Ormaiztegi mendia)»<sup>20</sup>.

## **KONJURUA BURUZ ESATEA**

Orendaingo nire berriemaileak ustez Zerainen bizi zen bidegile batek kontatua daki ondoko exortzismoa:

---

18. Ormaiztegin: Baltasar Mancisidor Goya, 82 urte. 1990eko maiatzak 28.

19. Ursuaran (Idiazabal auzoan): Tomás Goikoetxea Aierbe, 65 urte, Lizardi baserria. 1998ko maiatzak 15.

20. Ormaiztegin: Francisco Elorza Ayerbe, 82 urte, Aranguren Txiki baserria. 1990eko urtarilak 24.



«Geu garen bezala, kontrako liburua ekarri dugu. Inguruz inguru intxaur hostoa liburu. Kartilaz Aitzkorri, al maiz de Zegama, al maiz de Zuzpurrutegi (Zegamako auzo bat), amen»<sup>21</sup>.

## **PETROLEOAREKIN KONJURATU**

Matximentan, apaiza Isuola Zabaleta izena daraman baserrira joan zen konjurua egiteko asmoz, amona zaharra bakarrik aurkitzen zen une batean.

Baserri honetan argindarrak ez zuten ezagutzen; argia petroleoarekin egiten zuten, eta amonak, nahi ez zuela, ur bedeinkatuaren orde, petroleoa jarri zion ontzi batean.

Bere garaian apaizak erramu adartxo petroleotan sartu zuen, eta usainarekin berehala ohartu zen zer gertatzen zen, eta honela esan omen zuen: «Mekaxis la Txina, hemen bazter guztiak erreko zetiu»<sup>22</sup>.

## **KONJURUA ETA HARRAK**

Matximentan, Oto-Goenako baserrikoak apaizarengana joan ziren esanez, alpapa, harrekin erabat alferrik galtzen ari zitzaizela eta konjuruaren beharrean aurkitzen zirela. Apaizak baserrira joan eta konjurua egin zuen.

Ondorengo igandetan apaizak Oto-Goenako gizonari galdetu zion harrak akabatu ote ziren. Baserritarrek adierazi zion denak ez zirela galdu, baina dexente gutxitu zirela. Hau entzutean, apaizak erantzun zion konjurua arrentzat egin zuela eta emeak geldituko zirela bizirik<sup>23</sup>.

Aipagarria izan liteke harra = gusano eta arra = macho euskaraz «h»ak bereizten dituela, ez beste ezerk. Horregatixe erantzun zuen konjurugileak hitz joko egokia eginez, umorez gainera.

Konjuru honen antzekoa, Azkoitiko Martirieta auzoan entzuna dut, eta berdin ere Arroan (Zestoa)<sup>24</sup>.

---

21. Orendainen: Luisa Garmendia Urcola. 82 urte, Serora Etxea. 1990eko apirilak 29.

22. Matximentan: José Laca Gurrutxaga, 64 urte, Isuola Zabaleta baserria. 1988ko uztailak 21.

23. Matximentan: Ignacio María Lasa Lasa, 64 urte, Endrio baserria (Beasaingo lurretan). 1990eko uztailak 21.

24. Azkoitian, Martiriak auzoa: Manuel Arrizabalaga Zubizarreta, 73 urte, Martiriak baserria. 1997ko martxoak 2. Arroan (Zestoa): Patxi Azpeitia Gárate, 56 urte, eta Concepción Eizaguirre Murua, 52 urte, Torre baserria. 1998ko azaroak 13.



Basoa

### **KONJURUGILEAK AZALTZEN DU ZENBAT MAITATZEN ZITUEN HERRI BATZUK**

Itsasondoko apaizak ez zuen oso gogokoa Olaberriko herria. Konjurua egiteko garaia etorri zen, eta apaizak honela konjuratu zuen:

«Kyrie eleyson, Christie eleyson, salba Legorreta, Itsasondo, Beasain, Villafranca erdipurdi, rompe Olaberri»<sup>25</sup>.

### **KONJURUA ETA SENIDE ARTEKO HARREMANAK**

Olaberriko lau anaia, denak baserritarrak. Anaia bat Olaberrin bizi zen eta besteak Lazkao, Ordizia eta Itsasondon.

---

25. Garinen (Beasaingo auzoa): José Ignacio Laca Odriozola, 64 urte, Garin Arrese etxea. 1988ko urriak 20.

Olaberri gaudela, esango dugu trumoia, uda partean, Aitzkorri aldetik sortzen dela Tolosa aldera joanez.

Olaberriko baserritarrak belarra ontzen zeukan eta berdin beste anaiek, trumoi giroa azaltzen hasi zenean. Hodeiak kargatzen eta haizea indartzen ikusiz, Olaberriko nekazariak horrela esan omen zuen: «Pasa, pasa, por Olaberria, pasa también por Lazkano, erdipurdi –a medias– por Villafranca y descarga en Itsasondo».

Pasadizo honekin ikusten da Olaberriko baserritar honek nola eta zenbat maite zituen bere anaiak. Konjuro honen sakoneko esanahia Beasaingo Garin auzoan entzundakoaren kontrakoa da<sup>26</sup>.

### **KONJURUGILEAK AZALTZEN DU BERE NAHIA**

Erauntsi txarreko eguna zen Bidaniako baserritar bat beldur zenean bere lurra hondatuko ote zitzaizkion. Apaizik ez eta baserritarra bera ausartu zen konjuria egiten. Perrau izeneko baserrria zuen bere auzoan, eta honela esanez konjuria egin zuen: «Abrasatu ezak Perrau eta salba ezak Kojuro izeneko lurberrria». Kojuro soro hau exorzistarena zen<sup>27</sup>.

### **ARTZAINAREN BEREKOIKERIA**

Intzako bi artzain, San Migeletik bueltan nor bere bordara zihoala, ekaitz batek harrapatu omen zituen. Mendi-mendian eta non babesturik ez zutela, bietako batek, Martinxenea baserrikoa bera, esan omen zuen ozen: «Jauna! Ni salba nazazu besterik salbatuko ez baduzu ere!». Berriemailearen aitona, artzaietako bat hain zuzen ere, entzundako erregua da<sup>28</sup>.

### **IZPIRITU GOGOGAIZTOKO KONJURUA**

Bakaikun bildu nuen lursailen jabe zen apaiz batek egindako konjuria: «Salva mis maíces y los de mi hermano, los demás kirris-marras (destrózar)», hau da «Salba itzazu nere artasoroak eta nere anaiarenak, gainerakoak kirris-marras»<sup>29</sup>.

\* \* \*

---

26. Ordizian: José Agustín Urteaga Régil, 40 urte. 1998ko urtarrilak 24.

27. Matximentan: José Lasa Gurrutxaga, 64 urte, Isuola Zabaleta baserrria. 1988ko urriak 27.

28. Intzan: Francisco Otermin Balda, 77 urte. 1999ko abuztuak 7.

29. Bakaikoan: Pedro José Celaya Auzmendi, 63 urte. 1992ko maiatzak 14.

Bakaikukoaren antzeko aipamenak Uharte Arakilen jaso nituen: Dorrao-Ergoieneko auzokoak prozesioan joan ziren San Donatora.

Eguraldi txarra zen, trumoia. Hori zela eta, erlijio-desfilean parte hartzen ari zen batek esan zuen: «San Donato y San Cayetano, guarda mis piezas y las de mi hermano», hau da, «San Donato eta San Kaietano, golde nire lursailak eta nire anaiarenak». Hori entzunda, prozesiokide batek galdetu zion: «Y las demás?», hau da, «Gainerakoak?» eta berriz ere erantzun zion, «Las demas, mirris-marras (destronar)», hots, «Gainerakoak, mirris-marras»<sup>30</sup>.

\* \* \*

Dorrao-Ergoiena aipatu dudanez, gehituko nuke herri hau honako exorzismoan ere agertzen dela: «Salva Unanua, salva Torrano, en demás el maizal de mi hermano», hau da, «Salba ezazu Unanua, Salba ezazu Dorrao, eta nere anaiaren artasoraa»<sup>31</sup>.

\* \* \*



Atzoko argiak

---

30. Uharte Arakilen: Juan Beregaña Gastesi, 53 urte. 1992ko maiatzak 14.

31. Garinen (Beasaingo auzoa): José Ignacio Lasa Odriozola, 71 urte, Garín-Arrese etxea. 1995eko otsailak 17.

Narbajan jakin nuen emakume batek eskatzen zuela «Agua para mis berzas» edo «Ura nere azentzat», baina euria harri bihurtu zenean, halaxe esan zuen: «Esto –el pedrisco– para todos» edo «Hau –harria– denontzat»<sup>32</sup>.

\* \* \*

Zalduondon, Martina izeneko adin handiko emakume batez gogoratzen dira. Bere etxeko atarira atera eta hala egiten zuen konjuroa: «Agua para mis maíces y pedrisco para todos», hau da, «Ura nere artasoroentzat eta harria denentzat»<sup>33</sup>.

\* \* \*

Onraitako emakume batek «Agua para mis maices» edo euskaraz «Ura nere artasoroentzat» oihukatzen aritzen zen; baina euriak kazkabarra ekarri zuenean, berriz ere etengabe oihuka, «Que se reparta la Caridad (pedrisco) entre todos», euskaraz, «Bana dadila karitatea (harria) denen artean»<sup>34</sup>.

\* \* \*

Zaldibian honako konjuria esaten zen: «Salva Arkaka –hondonada entre los pertenecidos de la villa» y bota (descarga) en Andurion – monte de la misma localidad y de Ataun–», euskaraz esana, «Salba Arkaka –herriaren jabe-goko sakonunea– eta bota Andurion – Zaldibia eta Ataun arteko mendia–»<sup>35</sup>.

\* \* \*

Antza denez, Arizkungo apaizak ez zuen batere maite Bozateko auzoa. Konjuru batean, kasuari zegokiona latinez irakurri eta gero, honela amaitu zuen exortzismoa: «Guarda la Arizkun; borroka la (arrasa) Bozate», euskaraz emanek, Gorde ezazu Arizkun; borroka ezazu Bozate»<sup>36</sup>.

\* \* \*

Ekaitzaren beldur zenean, Zaldibiko baserritar batek etxe atarira irten eta honela konjuratzen zuen: «Guarda, guarda Konporta y Arkaka, descarga Mendibil» hau da, «Gorde, gorde Konporta eta Arkaka eta bota Mendibilen» (Konporta bere baserria; Arkaka, bere borda eta Mendibil mendi baten izena)<sup>37</sup>.

\* \* \*

---

32. Narbaxan: Miren García de Iturrospe Acedo, 71 urte. 1990eko abuztuak 28.

33. Zalduondon: Jesús María Pérez de Albéniz Chasco, 53 urte. 1997ko martxoak 1.

34. Okaizen: Carmelo López de Heredia Martínez de Maturana, 32 urte. 1997ko urriak 26.

35. Zaldibian: Martín Irastorza Nazabal, 81 urte, Ursuko Errota baserria. 1995eko martxoak 10.

36. Iraizozen (Ultzamako bailara): Restituto Oyarzun Grajirena, 70 urte, Artxaya etxea. 1983ko uztailak 24.

37. Zaldibian: Patxi Iraola Garmendia, 64 urte, Olegi etxea. 1997ko azaroak 15.



Artzaiaren borda

Lizarraga-Ergoiena herrian, bere iparraldean Meziza mendia aurkiten da, eta hegoaldean Leziza mendia.

Hodeia Mezizan agertzen zenean, Lizarraga herrian honela esaten zuten: «Carga Meziza, descarga Leziza», euskaraz «Karga Mezizan, bota Lezizan» alegia<sup>38</sup>.

\* \* \*

Hurrengo exortzismoa Zaldibian bildurikoarekin lotu daiteke. «Salva Konporta –caserio de Zaldibia– y Arkaka –donde se encuentran algunas de sus tierras– échala en Mendibil (terreno comunal de varios pueblos)»; euskaraz: «Salba ezazu Konporta –Zaldibiako baserria– eta Arkaka –bertan lursail batzuen jabe izaki– eta bota Mendibilen (hainbat herrik komunean duten lursaila)»<sup>39</sup>.

\* \* \*

---

38. Lizarraga-Ergoienan: Antonio Navarro Navarro, 55 urte, Otxaliñena etxea. 1995eko azaroak 29.

39. Abaltzisketan: Juan Garmendia Garmendia, 61 urte, Etxe Zar baserria. Lorenzo Otamendi Garmendia, 68 urte, Pilin Aundi baserria. 1997ko ekainak 28.

Hurrengo konjuruan Orendaineko bailaratik ekaitzak uxatzeko esaten da, galerak eta kalteak ondoko Gorriti mendiak jasan ditzan.

«Carga, carga Murumendi; pasa, pasa Orendaindi; descarga, descarga Gorritimendi». Euskaraz: «Karga, karga Murumendin; pasa, pasa Orendaindik eta bota, bota Gorritimendin»<sup>40</sup>.

## **EMAKUME BATEN KONJURUA**

Zaldibiako Bitori Etxe baserriko emakume batek, Loma izenez ezagutzen zenak, konjuratzeko ohitura zuen. Honetarako esku batean kandela piztuarekin eta bestean ur bedeinkatua eta erramu adartxo bat zituen ontzi batekin, Aralar mendietara begira jarritz, ur bedeinkatua bedeinkapen moduan botatzen zuen honako hau esanez: «Ekaitza Aralarren bota eta behekoa salbatu (beheko aldean daude baserriak eta herria)»<sup>41</sup>.

## **ARALARKO ARTZAINAK ETA KONJURUGILEA**

On Nikolas Zubeldia apaiza –nik ezagutu nuen, Abaltzisketakoa zen– Gipuzkoako Gaintza herrian erretore zen. Konjurua egin behar zuenean, estola ipini eta kanpaia jo ondoren eliza atarira ateratzen zen isipua eskuan zuela.

Konjurua egin ondoren, Gaintzako lurretan harrijasak behin ere ez zuen kalterik egiten, harrijasa Aralarko mendi aldera joaten zen eta inguru hartan konjuru hau zela eta harria egiten zuen.

Gertaera honekin Aralarko artzainak ez ziren adiskide, haserre bizian zeuden eta denen artean erabaki zuten aipatutako apaizari ematen zioten gazta gehiago ez ematea<sup>42</sup>.

## **ERMITAUAREN KONJURUA**

Otsagin, Muskilda ermita apaiz batek eta ermitau batek zaintzen zuten. Ekaitz egunetan, apaiza ez zegoela, ermitauak betetzen zituen harenak. Ekaitz egun batean, konjuratzeko beharra izan zen; horretarako ermitauak estola jantzi, gurutzea hartu, Muskildako Andra Mariren ermitako atarira atera eta honela egin zuen konjurua:

---

40. Orendarinen: José Urkola Garmendia. 71 urte, caserío Urkola. 1997ko ekainak 22.

41. Abaltzisketan: Juan Garmendia Garmendia, 61 urte, Etxe Zar baserria. Lorenzo Otamendi Garmendia, 68 urte, Pilin Aundi baserria. 1997ko ekainak 28.

42. Lazkaon: Patxi Irastorza Oiarbide, 61 urte, Begiristain baserria. 1994ko azaroak 30.



Lehen elurrak

*«Libérame Aezkoa  
Muskilda también.  
Zatika Valcarlos  
La Francia también».*

edo euskaraz:

*«Libra ieazadazu Aezkoa (ermitaua bailara hartakoa zen)  
eta Muskilda.  
Zatika Luzaide  
eta Frantzia ere bai»<sup>43</sup>.*

## **SAKRISTAUAREN KONJURUA**

Ezkurran trumoikada hasi eta konjurua egiteko apaiza falta. Jendeak batek besteari esan: «Apaizik ez kojurua egiteko». Honetan, sakristaua atera omen zen eta jendea beldurturik ikusiz, esan: «Ez larritu, konjurua neronek egingo dut». Eliza atarian jarri omen zen esanez: «Olegi, Belarregi (Ezkurra bi mendien izenak), Ataka Haundi (Eratsungo mendia) lerrai (hemen, Eratsunen, erauntsia botatzeari esaten zaio)<sup>44</sup>.

---

43. Otsagabian: Teófilo Echeberri Contín, 70 urte, Echeverri etxea. 1985eko abuztuak 20.

44. Erasunen: Anastasia Bengoechea Retegui, 75 urte, Biatenea etxea. 1985eko abuztuak 17.



## ESKEKOAREN KONJURUA

Eskeko bat Arantzazuko baserrietan eskean zebilen. Baserriko atea jo eta errezatu ondoren, konjuru gisa honela esanez amaitzen zuen ekintza: «Artua, garia eta babagorria asko izan daitezela etxe honetan, eta aldekoarenak harriak denak txikitu eta urak eraman».

Baserri guztietan gauza bera adierazten zuen. Baina hau sumaturik, baserri batekoa bestera joan zen eskekoak zer esaten zuen entzun nahian. Baina honetaz eskekoa ohartuta, limosna hartu gabe presaka eta korrika alde egin zuen.

Hau orain dela laurogeita hamarren bat urte gertatua da<sup>45</sup>.

## ELOSUN EZAGUTU DEN KONJURUA

Exortzismo hau behar bezala kokatzeko, Korta baserria Azkoitiko lurretan dela adieraziko dut. Bazterriñuak izenez ezagutzen diren hiru baserriak Antzuolan eta Lutxurdiokoak, izenez ezagunak direnak Elosukoak, Bergarakoak alegia. Denak ikus litezke Elosuko bailara honetatik. Eta hemendik, apaizetxe ataritik, honako konjurua esaten zen:



Artzaina artaldearekin

---

45. Oñatin (Arantzazuko auzoa): Juan Urcelay Biain, 66 urte. 1987ko apirilak 12.

«Hortik, hortik, Kortako soroetatik Hiru Bazterriñuak eta bi Lutxurdioak apurtuz eta nere ortuko txermenak gordez»<sup>46</sup>.

## KONJURUAREN ERAGILEA

Jarraian emango dudan berria konjuru bezala entzuna dut: «Uitzin izotza, Gorritin elurra, Azpiroztarrek badute beldurra»<sup>47</sup>.

## NEKAZARIAREN KONJURUA

Haize handiko egun batean, Zaldibiako nekazari batek, Juan Maria Erauskin, orain berrogeita hamabost urte hila, bere Ursuko Errota baserriko atarian agertu, txapela kendu eta eskuaz gurutzea eginez, honela zioen ozenki: «Adorazioa eta Bedeinkazioa, ospa infernuko etsaia»<sup>48</sup>.

## NEKAZARIAREN KONJURUA

Konjuru hau, Bere soroa eta andrea oroitzen dituen konjurgilea izenekoa bilduriko herri eta baserri berean dago bildurik, baina xehetasun aberasgarri batzuk ditu honek.

Amezketako Zurutzen baserriko gizonak, Jose Ramon izena zuenak, bere ustez konjuru egiteko garaia heltzen zenean, osin adartxo bat eskuan hartu eta harkaitz putzuzulo batean bustitzen zuen. Ondoren, bere baserriko atetik osin adartxoa isipuz hartuz eta bedeinkazioaren antzera honela esanez konjuru egiten zuen: «Guarda la Amezketeta, en particular beheko soroa eta Paiska (Frantziska, bere andrearen izena)»<sup>49</sup>.

## ESTOLAK DARDAR EGIN BEHAR DU

Oñatiko Arantzazu auzoko Soroandietta baserriko nere berriemailearen aitak, Pedro Urzelaik, artzain bati Urbian aharia erosi zion, eta ahari honen umeak zorroiloak ateratzen ziren.

---

46. Zarautzen: Juan José Aizpurua Esnal. 1996ko uztailak 14. Azkoitian (martirien auzoan): Manuel Arrizabalaga Zubizarreta, 72 urte, Martiriak baserria. 1996ko abenduak 21. Elosun: Mateo Gabilondo Alberdi, 70 urte, Agerre baserria (Bergarako lurretan). 1997ko ekainak 13.

47. Azpirozen: Bernardo Argiñarena Soroeta, 80 urte, eta Fermín Argiñarena Soroeta, 71 urte, Iriarte etxea. 1997ko urtarrilak 19.

48. Zaldibian: Martín Irastorza Nazabal, 81 urte, Ursuko Errota baserria. 1995eko martxoak 10.

49. Amezketan: José Arandia Rezola, 78 urte, Jauregi Goene etxea. 1993ko uztailak 25.



Erreguteak

Honi erremedioa egiteko, Pedro Urzelaik konjuria egitea pentsatu zuen, eta honetarako fraide bati esan zion. Fraidea etorri zen artegira eta konjuria egin zuen. Baina aurretik, aitak semeari esan zion biok begiratu behar zutela fraidearen estolak dardar egiten zuen, konjuruak balio izateko estolak dardar egin behar zuela eta.

Soroandietako konjuru hartan estolak dardarrrik ez zuen egin eta aharia haragitarako saldu zuten<sup>50</sup>.

## KONJURUA ETA BENENOA

Oñatiko baserri bateko arta-ganbaran saguekin ezin buruturik zebiltzan, eta hau honela ikusirik, etxeakoandreak senarrari esan zion zerbait egin beharrean aurkitzen zirela saguak izkutarazteko.

Orduan, konjuria egiteko, apaiz bati esatea pentsatu zuten. Apaiza akolitoarekin baserrira joan zen eta bere eginbeharra bete zuen, exortismoa egin zuen. Elizara itzuli zirenean, akolitoak sagu batzuk ikusi zituen sakristian, batera eta bestera mugitzen, eta apaizari honela esan zion: «Jauna, hemen ere zerbait –konjuria– egin beharko dugu ba!» eta hau entzutean, apaizak erantzun: «Saguentzat onena benenoa duk»<sup>51</sup>.

50. Oñatin (Arantzazu auzoan): Juan Urcelay Biain, 66 urte. 1987ko apirilak 12.

51. Oñatin (Arantzazu auzoan): Miguel Maiztegui Arregui, 61 urte. Goiko Benta etxea. 1997ko martxoak 9.

## **KATUAK ETA KONJURUA**

Arantzazun exortzismoaren eraginaz apaizak agertzen zuen mesfidantzaren antzekoa zuen konjuruegilearena gogoan gordetzen du Zegamako herriak, Txomin Landa herriko elizako sakristauak esan zidanaren arabera.

Soroan zomorroek kalte egiten zutela eta, baserri batetik apaizari konjurua egiteko dei egin zioten.

Apaizak bete zuen bere eginbeharra eta galdetu ziotenean zomorroak akabatu ote ziren edo ez, konjurugileak honela erantzun zien: «Nire hanka azpian harrapatu ditudanak, haiek behinik behin bai» eta apaizak honela esanez amaitu zuen: «Zomorroentzat, soroa garbitzeko, onena duzu bi katar (katu arrak) ekartzea»<sup>52</sup>.

## **KATUAK ETA KONJURUA**

Gertakizun hau funtsean izen bereko aurrekoaren berdina da, baina baditu aberasgarri diren xehetasun batzuk, non gertatua den jakitea adibidez, hemen ematera bultzatzen nauena.

Legazpiko Olaberri izeneko erroitan saguekin ez zuten onik izaten, eta hau ikusirik apaizari konjurua egiteko deia egin zioten.

Apaizak bete zuen bere eginbeharra eta merienda ona egin ondoren, erro-tariari esan zion gauza onak ez zuela gauza txarrik ekartzen, baina katar gogor pare bat behar den lekuan jarriz gero, eragin ona egin zezakeela<sup>53</sup>.

## **KONJURUGILEAK ZAPATA BOTAZ ZERUA GARBITU**

Tximista eta trumoia jo zuten, gero euria eta harria. Konjurua apaizak egin eta atertzeko indarrik ez. Konjurugilea benetan haserretu zen eta haserre honekin bere oinetako zapata bat erantzi eta ahal zuen urrutienera bota zuen. Orduan bat-batean ortzea garbitu zuen. Konjuru honek gogora ekartzen dit *Konjurugileari deabrua agertzen izenekoa*<sup>54</sup>.

---

52. Zegaman: Domingo Landa Etxeberria, 71 urte. 1997ko uztailak 5.

53. Legazpian (Telleriarte auzoa): Luis Olavide Irastorza, 69 urte, Mirandaola baserria. 1998ko irailak 6.

54. Orendainen: Ignacio Arsuaga Izaguirre, 67 urte. 1997ko uztailak 27.



Naturaren indarra

## **HARRIJASA ITSASORA**

Asteasun eta Larraulen, konjuria egiten zutenean, bertakoek harria itsasora joan zedila eskatzen zuten. Arrantzaleek, berriz, itsasoan aurkitzen zirenean, harrijasa lehorrera joatearen nahia agertzen zuten<sup>55</sup>.

## **BARRIKA BATEK HARRIJASA JASOTZEN DU**

Nire berriemaileak bere zaharrei entzuna die Leitzako apaiz batek konjuria egin zuela esanez plazaren erdian barrika bat ahoz gora jartzeko. Ondoren, harrijasa dena barrika honetan sartu omen zen, herrian kalterik egin gabe<sup>56</sup>.

## **KONJURUGILEA ETSIAZ GOGORATZEN DA**

Jarraian azalduko dugun konjuran exortzistak, Infernuko etsaia uxatzeko, zapata botako dio. Horrela, exortzismoaren eragin ona eragotzi zezakeen oztopoa gaingidituko du. Badira bizpahiru konjuru honen antzekoak, baina honakoak, aurrekoekin bat badator ere, aipatzea merezi duten xehetasun

---

55. Asteasun: Juan Alustiza Esnaola, 76 urte. 1997ko urriak 12.

56. Areson: Miguel Barandarain Labayen, 80 urte, Olatxeta baserria. 1997ko urriak 25.

aberasgarri batzuk eskainiko dizkigu. Nafarroako Araitz bailarako Gaintza herrian eguraldiak ekaitza itxura hartu zuen. Jendea ikaratu egin zen eta Azkarateko apaizari dei egin zioten konjurua egin zezan. Honek lan hauetarako egokia zen liburua hartu eta exortzismoa egiteari ekin zion, inguruko Mailoak izeneko mendiak harrijasak zurituta zeudenean.

Apaiza konjurua egiten ari zela, ikaragarritzko haizea sortu zen eta hau ikusitakoan, bere zapata eskuan hartu eta bota egin zuen, inguru haietatik infernuko etsaia uxatu asmoz, honela esanez: «To eta eraman ezak!». Oinetakoa Intzako mailoan azaldu zen, Aginaga iturri ondoan, eta Gaintzako herrisak ekaitzaren kalterik ez zuen ezagutu<sup>57</sup>.

## **SAN MIGEL AINGERUA ETA KONJURUA**

Uharte Arakileko alkateak basozainari esan zion San Migelera igotzeko eta han bertako paizari esateko Aingeruarekin mesedez jaitsi zedila Uhartera basasaguak akabatzeko konjurua egin zezan.

Hau entzunik, apaizak honela adierazi zion basozainari: «Aingeruak basasaguak akabatu nahi baditu, inora joan gabe hemen bertan badauzka nahikoak».



Ermita bidea

---

57. Gaintzan (Araitz bailara): Ramón Ascaray Arsuaga, 58 urte, Matxindo baserria. 1988ko otsailak 21.

Allin entzun dudan honen berdina Oderitzen gertatua, herri honetan esan zidatenez<sup>58</sup>.

## **SAN MIGEL, SAGU SANTUA**

Nafarroako Erriberan basasaguen izurria zegoen, eta hau konpontzeko Aralarko Aingeruarekin konjuru egin zuten. Ekintza hau dela eta, Aingeru Konjurugileak Sagu Santuaren izena hartu zuen<sup>59</sup>.

Hemen adieraziko dut errogatiban egiten diren konjuruaren artean aurkitzen dela Saguen konjuruaren izenekoak, ikustea izango dugun bezala.

## **LAKUNTZAN OTOITZ-ESKAERA**

Harrijasaren beldur aurkitzen zirenean, Lakuntzako herrian honela esaten zuten:

«Beste mundutik mundu honetara harririk ez ezazula bota, Jainko maitea. Guk hemen ura maiz behar dugu, mundu honetan nahikoa harri badaukagu»<sup>60</sup>.

## **OTOITZA**

Lakuntzan, oinaztura (tximista, oinaztargia) ikusi eta ostotsa (trumoia) entzutean, beldurtu egiten ziren, beste mundukoak zetozela pentsatzean, eta hauxe esaten zuten: «Jainkoak barka gaitzala kalteren bat egin badugu»<sup>61</sup>.

## **HARRI JAIA**

Tolosako Bedaio auzoan –antzinako Gipuzkoako hiriburuaren Aldaba auzoari ere badagokio, ikusiko dugun moduan– eguneroko lan-jarduera aldatu egiten duen jarrera honen sorrera, oso modu bitxian eginiko konjuru batean –jaieguna zaitzea alegia– datza.

Igokunde jaiaren hurrengo ostegunean, hiru urtetan segidan harri-jasa ezagutu zuten Bedaion, kalte handiak eginez. Egun batez, ikusitakoak ikusita, auzoak aipatu egunean, ostegunean, jai egitea erabaki zuen, eta urtez

---

58. Alli (Larraungo bailara): Ignacio Zabaleta Recalde, 65 urte, Arretxea baserria. 1998ko otsailak 23. Oderizen: Anastasio Viana Oderitz. 1998ko otsaila 23.

59. Arakilen: Angel Ongai Azpiroz, 59 urte, Martxorena etxea. 1998ko otsailak 23.

60. Olaztin: Félix Razquín Lizarraga (Lakuntzan jaioa), 80 urte, Errekalde kalea. 1996ko azaroak 29.

61. Aurreko erref.



Ardien ile-mozketa

urte iraun duen ohitura da. Meza, bazkaria eta afaria, baita trikitixa ere pilotalekuan.

Lehen, eta bai orain ere, nahi duen guztiak etxetik jana eraman dezake biltokira, eta hemen, pilotalekuan, Herriak ardoa jartzen du.

Juan Antonio Sarasola, auzoko Zumizketa baserriko txistulari ezagunak –Tolosan omendu genuenak– alaitzen zuen eguna, duela urte batzuk<sup>62</sup>.

## **HARRIJASA ETA SAN ANTONIO EGUNEKO JAIA, ALDABAN**

Ospakizun honen sortzea Bedaioko Harri jaiaren berdina da. Ekainaren 13ko San Antonio eguna Tolosako Aldaba auzo honetan jai egiten da. Ikusten denez, egun honetan urte batzuetan errezkadan Tolosako auzo honen lur guztiak hondatu zituen harrijasa ezagutu zuten. Eta hau dela eta, konjuru gisa, auzo honek erabaki zuen aurrerantzean egun hau jai egitea, baserri guztiak partaide direla meza baten estipendioan.

Meza honen ondoren auzokideak bazkari batean biltzen dira, eta orain urte batzuk arte, ospakizuna ilunabarrean plazan amaitzen zen, akordeoiaren erromeriarekin.

---

62. Bedaion (Tolosako auzoa): Josefa Antonia Aguirrezabala Zabala, 67 urte, Bedaio Bitar-tea etxea. Dimas Zubeldia Jáuregui, Zumizketa baseria. 1993ko maiatzak 25.



Laurogei urtetik gorako nekazaria zen Ramon Larrañagak esanda dakit ekainaren 13ko egun hartan Arizmendi auzo honetako baserrikoak belarmeta bat egin zutela eta tximistak erre egin zuela meta hau<sup>63</sup>.

## **BERE SOROA ETA ANDREA OROITZEN DITUEN KONJURUGILEA**

Amezketako Zurutze baserriko andrea beheko soroa izenez ezagutzen zuten lurrean artajorran ari zen, ekaitza sortu zenean. Gauza hau ikusirik, bere senarrak, besoak zabalduz, etxeko ataritik honela esanez konjuru egin zuen: «Gure Jainkoak salba dezala beheko soroa eta bai nire andre Franziska ere».

Ohartuko gara konjurugileak aurrena bere lurra eta gero, atzetik, bere andreaz oroitu zela<sup>64</sup>.

## **KONJURUAN SINESMEN GUTXI**

Oñatiko baserri bateko aitona bere biloba batekin zegoen. «Aitonak bista galdu samarra zeukan eta bilobari honela galdetu zion: «Han, soroan bestaldeko puntan daudenak, zer egiten dute?», «Aitona, ez dakizu zer egiten duten? Soroko pizti txarrak akabatzeke konjuru egiten dute». Hau entzunik, aitona erantzun: «Ez, hori ez, konjuru ez, karea, karea...»<sup>65</sup>.

## **KONJURUAN SINESMEN GUTXI**

Zaldibiako Aiestaran auzoan apaiz bat konjuru egitera joan zen. Jose Maria Etxeberria «Argiña» ezizenez ezagutuaren lurrak konjurutik kanpo, ahazturik, gelditu ziren, eta gertakizun hau konjurugileak «Argiña»ri adierazi zion.

Hurrengo urtea heldu zenean, apaizak Etxeberriari esan: «Iaz zure lurrak konjuratzea ahaztu zitzaidan, baina aurten ez zait honela gertatuko». Hau entzutean, «Argiña»ren erantzuna honelakoa izan zen: «Hara jauna, nahi duena egin beza; baina joan den urtean sekula ezagutu dudak uzta onena izan nuen»<sup>66</sup>.

---

63. Aldaban (Tolosako auzoa): José Aldalur Jauregui, 82 urte, Lopetegi baserria. Pío Emañalde Larrañaga, 61 urte, casa Elizondo. Ramón Larrañaga Azurmendi, 86 urte, Muñozabal baserria. 1993ko abuztuak 22.

64. Amezketan: Fermín Zubeldia Tolosa, 67 urte, Olegi baserria. 1997ko azaroak 13.

65. Oñatin (Torre Auzoa): José Urcelai Cortabarría, 72 urte, Migel-enea etxea. 1997ko azaroak 16.

66. Zaldibian: Patxi Iraola Garmendia, 64 urte, Olegi etxea. 1997ko azaroak 15.



Negua, konjuroen urtaroa

## **KONJURATZEAZ ARTZAIN BATEN ERANTZUNA**

Apaiz bat konjuria egiten ari zela ikusiz, Amezketako artzain batek –Bidan-ian bizi zenak– honela esan zuen: «Konjuria ona izango da, baina euria egi-teko haize nahastua hobea»<sup>67</sup>.

## **LEHORTEA DELA ETA BI JOKAERA**

Bi bizitzako baserri bat zen eta lehorre handia ezagutzen zuten. Hau horrela, etxekoneko bat aitzurrean ari zen beste etxelaguna euri eskean eliz-kizunetara zihoanean, eta honek honela esan zion lurra lantzen ari zenari: «Ez al duk joan behar erreztzera euria eskatuz?». Hau entzunik, besteak erantzun zion: «Hik segi ezak, segi ezak erreztzera; hire lurretan euria egiten badu, nireetan ere egingo dik eta»<sup>68</sup>.

## **KONJURUGILEAREN URRUN EGIZKOTASUNA**

Honako kontakizunak ez du oinarri konjuru heterodoxo bat, baina uste dut errito ez ortodoxo baten sarrera izan daitekeela.

---

67. Bidanien: José Otaegui Galarraga, 71 urte, Arrese baserria. 1998ko martxoak 7.

68. Errezilen: José Lizaso Cendoya. 54 urte, Aristitxo baserria. 1998ko uztailak 5.

Ezkioko apaizak ohiturazko konjurua egiteko herri inguruko baserriak korritzen zituen, baina berriemailearena, Agerre Goikoa izenekoa, herritik urrun, bi bat kilometrotara aurkitzen zela eta, konjurugilea ez zen bertara hurbiltzen; eliza ondoko horma baten gainetik konjurua egiten zion. Hau honela, Agerre Goikoa baserriko Jose Antonio Aranzadik –hogei duro ordaintzen zizkion apaizari betebeharrak honengatik– galdetu zion apaizari exortzismo horrek, hain urrutitik eginak, indarrak izango ote zuen. Apaizak hau entzunik, erantzun: «Nik bai uste, nik bai uste...»<sup>69</sup>.

## KONJURUAREN URRUN EGIZKOTASUNA

Idiazabalen, Benta Txikiko Inazio Oiarbidek esan zidan apaiz bat mozorroen kontrako konjuru bat egitera joan zela baserri batera. Ondorengo elkarrizketan, baserriarrak apaizari esan zion bera Ameriketara urte batzuk igaro ondoren, han lur batzuen jabe jarraitzen zuela eta nahi zuela jakin hemendik egiten zen konjuruak han, bere lurretan, indarrak izango zuen. Hau entzutean, apaizak baietz erantzun zion<sup>70</sup>.

## KONJURUGILEARI ORDAINKETA

Beste leku batzuetan bezalaxe, Azkoitiko baserrietan bazuten ohitura apaizak egindako konjurua oilasko bat edo gehiagorekin ordaintzea. Baina ikusten denez, gauzak ez ziren beti zuzen-zuzen joaten. Honela, baserri batek apaizari esan omen zion bere baserriera ez zela joan konjurua egitera.

Orduan apaizaren erantzuna honela izan zen: «Han, garosailetik egin nian konjurua». Hau entzutean, baserriarrak erantzun: «Nik leihotik bidali nituen oilaskoak»<sup>71</sup>.



Euria eta konjuroa

69. Ezkiogan: José Antonio Aranzadi Urkiola, 70 urte, Agerre Goikoa baserria. 1997ko urriak 5.

70. Idiazabalen: Ignacio Oyarbide Múgica, 68 urte. Benta Txiki. 1996ko abuztuak 1.

71. Azkoitian: Dionisio Garate Garate, 73 urte. 1997ko martxoak 15.

## KONJURUGILEARI ORDAINKETA

Zaldibiako apaiz bat, bere akolitoa berarekin zuela, baserriz baserri konjuru egiten ibiltzen zen. Ohitura bati jarraituz, etxe bakoitzean oilasko edo arrautzekin ordaintzen zioten bere eliz ekintza hau. Honela, baserri batetik irtetean, jakinik bertakoak zuhur samarrak zirela, apaizak galdetu zion akolitoari zenbat arrautza eman zizkioten. Akolitoak erantzun zion bi arrautza bakarrik eman zietela. Hau entzunik, apaizaren erantzuna honelakoa izan zen: «Orduan zomorroak indarra izango ditek»<sup>72</sup>.

## GARI BEDEINKATZEA

Nekazal lurrei eskainitako exortzismoekin bilduko dut honakoa, gari bedeinkatzea izenekoa, oso antzekoa baita. Beheko kontakizunean, etxeko amamak apaizaren lana beteko du.

Aitzina, Mendekoste ondorengo egunetan, apaizek soroak bedeinkatzen zituzten, batez ere gari-soroak. Horrexegatik jasotzen zuen errito honek gari-bedeinkatzea izena.

Baserri bakoitzak bi oilasko ematen zizkion apaizari, honen etxera eramanez. Baina urtetik urtera opari gisa emandako hegazti-kopurua murrizten joan zen eta apaizaren gogoia era berean gutxiagotzen joan zen, azkenean, ohitura zeharo galdu arte.

Mendaroko baserri batean, honelako gertaera bat eman zen eta behean zehaztuko dugun konponbidea aurkitu zuten.

Apaiza aipatu betebeharra egitera joan ez zenez gero, etxeko amama prest agertu zen haren lanak egiteko, hala esanez: «Aurten abadea etorri ez bada, neuk bedeinkatuko ditut». Segidan pitxer batean ur bedeinkatua eta adar bat hartu eta hala esan zuen:

«Ogi bedeinkatu santua  
lurrean indartua  
zeruan santutua  
hau jaten dugunean  
izan bedi nere anima salbatua»<sup>73</sup>

## NEKAZARI ETA ARRANTZALE BAT SAN TIBURTZIORI MINTZATU ZITZAION

San Tiburtzio Leitzako patroia da. Herri honek lehorte handia ezagutzen zuen eta leitzar nekazari eta arrantzale batek honela esan zion Santuari:

---

72. Zaldibian: Patxi Iraola Garmendia, 64 urte, Olegi baserria. 1997ko azaroak 15.

73. Markinan: Ciriaco Urresti Cenarruzabeitia, 67 urte. 1985eko urriak 8.



Ermita harkaitzen erdian

«San Tiburtzio egin ezak euria, gainerakoan amuarrainek potroak jango dizkiate». Hurrengo egunean harrijasa erauntsiak soro guztiak txikitu zituen<sup>74</sup>.

### **ERRAZKINGO APAIZA ETA BERE PATATA-SOROA**

Errazkingo apaizak patata eginda zeukan eta behin batean lehorte handia zenean, ohiturazko errogatiban bere soro aurrean pasatzean, honela egin zuen deiar: «Agua para mis patatos» (sic) eta sakristauak erantzun: «Dios te oiga, Militon» (Migel Anton apaizaren izena laburtuz). Hau entzutean, lekuko guztiek berehala gehitu zuten esanez: «Te rogamos audinos»<sup>75</sup>.

### **SANTUARI AURPEGIA GARBITU**

Zalduondoko hilerrian aurkitzen den elizatzokak San Adrian du izena, eta nekazariak euri beharrean aurkitzen zirenean, hauek, herritarrek, Santua

---

74. Betelun: Martin Múgica Goicoechea, 52 urte. Etxaburu auzoa. 1996ko abuztuak 2.

75. Errazkinen (Larraungo bailara): Koldo Balda Martirikorena, 40 urte, Petrinea etxea. 1993ko otsailak 25.

Zubizabal izeneko zubira errogatiban jaisten zuten eta hemen, zubian izena eman dion ibaiaren uretan aurpegia garbitzen zioten<sup>76</sup>.

## **ERROGATIBAN SANTUA URETARA**

Ezkurran euria behar zutela eta, errogatiban atera ziren San Migel irudia eramanez. Eliz otoitz honetan ari zirela, ur-aska baten aurrean pasatzean, Aingeruaren irudia uretan sartu-atera bat egin zuten. Handik egun gutxitara, Ezkurrako herriak, herri honek bakarrik, izugarrizko uraldia ezagutu zuen<sup>77</sup>.

## **SANTUA URETARA**

Ziraukiko herriak lehorte handia bizi zuen eta hau erremediatzeko asmoz bertako Eskinza izeneko mendian aurkitzen den ermitara joan ziren. Elizatxo hau San Kristobalen izenpean dago eta Ziraukikoak santuaren irudia hartu eta errogatiban ibiliz, Salado izeneko uretan sartu-ateran ibili zuten, aldi berean esanez: «Cristobal, Cristobalete, si no llueve, chapucete, chapucete».



Ikuspen esoterikoa

---

76. Zaldudonon: Ignacio Pérez de Arenaza, 71 urte. 1998ko otsailak 22.

77. Ezkurran: José Marla Etxeberria Gartziarena, 40 urte. Goikoetxea borda. 1997ko azaroak 1.

Egun bereko arratsaldean, berebiziko harrijasak herri honen lur-ondasun guztiak txikitu eta galdu zituen<sup>78</sup>.

## **SANTUA ERREKAN**

Zaldibian Saturdiren ermita bat aurkitzen da. Lehorte handia zegoen eta errogatiba egitea erabaki zuten. Honetarako, Saturdi bere elizatzotik Zaldibiako eliz parrokira eraman zuten, eta gero, errogatiba egin ondoren, Santua ermitara auzoko mutil batzuek zeramatela, ordurarte euri-tantarik egin gabe bazen ere, erreka batean sartu zuten eta bat-batean euria hasi, euri jasa handi bat hasi zuen<sup>79</sup>.

## **SANTUA ERREKAN**

Zaldibiakoaren antzekoa egin zuten Nafarroako Zubieta herrian. Hemen San Isidro bat errekan sartu zuten, baina honek euririk ez zuen ekarri<sup>80</sup>.

## **KAREGILEA ETA ERROGATIBA**

Karobia pizteko asmotan aurkitzen zen bati, ekintza honetarako euria inola ere ez zitzaion komeni, eta bere herriko errogatiba euria eskatuz atera zenean, gure gizonak eliz ibili honetan parte hartu eta letanietan honela errepikatzen zuen behin eta berriz: «Haize eta bero, ora pro nobis»<sup>81</sup>.

## **TARAZONA, ASIAIN (CENDEA DE OLZA), ETXARRI ARANATZ ETA NARB-AJAKO TEILAGINAK**

Soroa ur beharrean zegoenean eta errogatiba euri eskean abiatzen zenean, kalean lan egiten zuten Tarazona inguruko teilaginek –beren lanaren alde– letaniak errezatzen ari zirela, honela jarraitzen zuten: «Sol y aire, agua no»<sup>82</sup>, hau da «Eguzkia eta haizea, urik ez». Gauza bera jasoa dut Asiainen. Juan Arriagak esan zidan ezagutu zuela bere herriko teilagilea eta errogatiban hala zioela: «Sol y aire, agua no»<sup>83</sup>.

---

78. Mañerun: Rafael Hermoso de Mendoza Gurutzarri, 62 urte. 1998ko abuztuak 23.

79. Zaldibian: Miren Murua Gorostidi, 62 urte. 1997ko azaroak 6.

80. Zubietan (Nafarroa): Santiago Telletxea Elizalde, 80 urte, Luzekua etxea. 1997ko azaroak 1.

81. Abaltzisketan: Santiago Zubeldia Olano, 74 urte. 1995eko ekainak 28.

82. Tolosan: Angel Peralta Domínguez, 77 urte. 1997ko maiatzak 7.

83. Asiainen (Oltza Zendea): Juan Arriaga Zubieta, 71 urte, Arriaga etxea. 1996ko abuztuak 16.

Errogatiban euri eskean zihoazela, Etxarri Aranatzeko teilaginak honela esanez errepikatzen zuten: «Sol y calor» edo «Eguzkia eta beroa» errepikatzen zuten behin eta berriro<sup>84</sup>. Arabako Narbaja herriskakoak ibilera berdinean hau adierazten zuten: «Sol y viento, agua no», hau da «Eguzkia eta haizea, urik ez»<sup>85</sup>.

## **ERROGATIBA ETA ATAUNGO BASERRI BATEKO MORROIA**

Ataunen, San Martin auzoko errogatiba eliz parrokiatik Kalbario Santuaren eliztxora joaten zen. Apaiza letaniak errezatzen eta errogatiban zihoazenean erantzun jakinekoa ora pro nobis zen. Baina denen artean herriko baserri bateko morroia aurkitzen zen eta honek euririk ez zuen eskatzen, bai zik denak entzuteko moduan deiadarka esaten zuen: «Zimaurra eta karea»<sup>86</sup>.

## **ERROGATIBAN SINESMEN GUTXI**

Aguraineko nekazariak apaizari behar beharrezkoa zitzaiezen euria egitearen aldeko errogatiba egiteko eskatzen zioten. Horretarako, elizaren sakristiara hurbildu eta apaiza leihoan agertuz, eta zerura begiratu eta gero, esan zien: «Errogatiba nahi baduzue, egingo dugu; baina euririk ez»<sup>87</sup>.

## **ERROGATIBAN SINESMEN GUTXI**

Arabako Egilaz herriskako biztanleak beren apaiz erretore zenaren etxera joan ziren euriaren beharrea aurkitzen zirela esanez eta errogatiba ateratzeko eskatuz lehortea amaitu zedin.

Apaizak eske hau entzun ondoren, honela erantzun zien: «Itxaron, egin ezazue zerbait, lainorik ez baita oraindik ikusten»<sup>88</sup>.

## **ERROGATIBAN SINESMEN GUTXI**

Nafarroako Garinoain herriko biztanleak beren apaizarenera joan ziren errogatiba ateratzeko esanez, euri beharrea aurkitzen zirela eta. Hau entzun ondoren, apaizaren erantzuna honela izan zen: «Nola egingo du euria, zerua garbi, lainorik gabe badago»<sup>89</sup>.

---

84. Lazkaon: Pello Ormazabal Labaien, 65 urte. 1998ko urtarrilak 25.

85. Zalduondon: Ignacio Pérez de Arenaza, 71 urte. 1998ko otsailak 22.

86. Ataunen: Angel Munduate Usabiaga, 70 urte. 1998ko uztailak 30.

87. Okaritzen (Araba): Carmelo López de Heredia Martínez de Maturana, 32 urte. 1997ko urriak 26.

88. Araian: José Auzmendi Arenaza, 67 urte. 1996ko uztailak 26.

89. Puiu (Nafarroa): Marino Urdin Armendariz, 60 urte. 1998ko abuztuak 12.



### **KONJURUA NEKAZARIEN NAHIA BETEZ**

Altzoko Otsegi baserriko etxejaunak entzuna dio bere aitonari apaiza joan zela bere baserrira, arbitan kalte handia egin zuten zomorroak konjuruaren bidez akabatzeko.

Apaizak bere eginbeharra bete aurretik galdetu zion aitonari, Donato Lizarralde izenekoari, nahi al zuen zomorroak beste baten sorora bidaltzea. Hau entzutean, baserritarrak ezetz erantzun zion, errekarako bidea hartzeko. Zomorroak errekararen uretan akabatu ziren<sup>90</sup>.

### **KONJURUGILE APAIZA ETA AKOLITOA**

Pedro Etxarren akolitoa edo monagiloa zen Anotz herriko –Olló bailaran– apaizari laguntzen zionean. Honek konjuria harrijasaren aurka egin behar zuen batean ekaitzaren euria hasia zen eta nere berriemaileak galdetu zion apaizari bere ekintza honen esanahiaz, eta konjurugilearen erantzuna hau izan zen: «Konjuruak harria beste leku baterako bidean jartzen du». Hau entzutean, akolitoak esan: «Zuretzat nahi ez duzuna, besteari ez opa»<sup>91</sup>.



Kazkabarra

---

90. Altzon: Miguel Murua Mendizabal, 67 urte, Otsegi baserria. 1995eko abuztuak 6.

91. Anotzen (Ollaran): Pedro Echarren Lacunza, 75 urte, Faustorena etxea. 1998ko abuztuak 17.

Gogora etorri zait bere lursaila lantzen zuen nekazari batek –hau Bastidan kontatu zidaten– harri bat hartu eta auzokoaren sorora bota zuela esanez: «Bihur zaitetz ongarr!»<sup>92</sup>.

### **AMABIRJINARI AURPEGIA GARBITU**

Olo herrian –bere izen bereko bailaran– lurak ur beharrean aurkitzen ziren batean, bertako emakumeak eliz parrokira joan ziren –eliza hau Santo Tomasen izenpekoa dugu–. Han Amabirjina hartu, eliz atarira eraman eta bertan urarekin aurpegia garbitu ondoren berriro bere lekuan utzi<sup>93</sup>.

### **ERROGATIBA ETA UNTZURRUNGO APAIZ SUMINKORRA**

Untzurrungo apaiza eta herria ez ziren ondo etortzen, haserre ziren. Baina bertako biztanleak lehorre handia dela eta apaizarengana joatera behartu ziren, euria eskatuz errogatiba egin zezan. Hau entzutean, apaizaren erantzuna honelakoa izan zen: «Herri honetan errogatiba sufrea eskatuz egingo dugu». Apaiza, nire ustez, esaera honetan Bibliako Sodomaz eta Gomorraz oititzen zen<sup>94</sup>.

### **ERROGATIBAN AITA BATEN BURU HAUSTEA**

Bastidako udalaren menpe aurkitzen da Buradon Gatzaga. Herri honetako errogatiba batean aitak bi semerekin hartu zuen parte. Hauetako bat baratzalea zen eta bestea teilagina. Baratzaleak euria eskatzen zuen eta besteak, berriz, «eguzkia eta haizea, urik ez».

Amaitu zen errogatiba, eta hauen aitak eliza atarian, zerura begiratu, honela esan zuen: «Adiskide, egin ezazu zure borondatea, nere seme bat baratzalea da eta euria nahi du; bestea berriz, teilagina eta bere lanerako eguzkia eta haizearen beharrean aurkitzen da, eta nik biekin ondo gelditu nahi dut»<sup>95</sup>.

### **ERROGATIBA ETA OTI-IZURRIA**

Bastidako herrian ikusten zuten oti-izurria beren lur aberastasuna hondatzen ari zela. Ezbehar hau gainditzeko asmoz eliz parrokiko apaizekin elizki-

---

92. Bastidan: Matías B. Pérez Ciriza, 78 urte. 1998ko abuztuak 20.

93. Ollon (Ollaran): Esperanza Osés Huarte, 74 urte, Ezequiala etxea. 1998ko abuztuak 17.

94. Atondon (Iza Zendea): Ambrosio Munárriz Arrizurieta, 80 urte, Gartzikorena etxea. 1998ko abuztuak 17.

95. Gatzaga Buradonen: Luis Ircio del Rey, 74 urte. 1998ko abuztuak 20.

deak errogatiban atera ziren, Montemuga komentua helburu zutela. Bidean zihozten bitartean ikusten ari ziren otiak lurrak uzten eta, gero, ohartu ziren aipatutako komentuarien horma inguruan akabatuta aurkitzen zirela<sup>96</sup>.

## **EKAITZA URRUNTZEKO**

Goraldi Larunbat goizean, orain dela urte batzuk arte ospatzen zen egunean, kanpai-doinu alaiak irauten zuen bitartean, Zanbranako ume eta heldu batzuek lurretik harri batzuk jasotzen zituzten eta beren etxera eraman. Gero, ekaitza hurbil sumatzen zutenean, etxeko gizon-emakume batzuek etxe atarira irten eta, indarrez, harri hauek gora, zero aldera botatzen zituzten ekaitza urruntzeko asmoarekin<sup>97</sup>.

## **SAN BARTOLOMEREN DOHAIA**

San Bartolome dohatsua zutitu, hanka eta eskuak garbitu eta Jesukristo aurkitu zuen. Honek esan zion:

–Nora zoaz, Bartolome?

–O!, Jaun hori, zurekin joango naiz.

–Itzul zaitez zure etxera eta zure etxaldera, Bartolome, dohai bat emango dizut eta: «Nonbait zure izena hiru aldiz errepikatzen badute, bertan ez da ez harririk ez tximistarik eroriko eta emakumerik ez da erditzeko garaian hilko, ezta umerik izututa»<sup>98</sup>.

## **EGUZKIAREN ETA URAREN SINBOLISMOA ERROGATIBAN**

Erbitin, Migel Iribarrenek bere aitonaz hitz egin zidan. Aiton hau eliz parro- kian sakristaua eta kantaria zen, eta bere inguruan ohikoa den moduan, sarri brusa beltza zeraman. Gogoan duenez, errogatibara bi poltsarekin joan beharra zegoen, bata eguzkiari eskainia eta bestea urari. Eguraldi onaren beharra zegoenean, eguzkiari eskainitako poltsa hartzen zuen eta ura behar zuenean, euriari eskainitakoa.

Jarrera honek badu harremanik predio sinbolikoarekin. Eguzkia, Dantek esaten zuen bezala, hilkorren argizuloa, eta ura; biak garrantzitsuak dira,

---

96. Bastidan: Matías B. Pérez Ciriza, 78 urte. 1998ko abuztuak 20.

97. Zambran (Araba): Esther Corcuera Lete, 57 urte, Luis Ocio Suso, 65 urte, eta Nicolás Pereda Zorrilla, 87 urte. 1998ko abuztuak 20.

98. Iruñean: Alberto San Julián Bustince, 77 urte, Padre Calatayud kalea. José Manuel Atxaga Hernandorenak Tolosan eskainitako erreferentzia. 1998ko abuztuak 30.

bakoitza bere neurrian, lurra ereiteko garaian. Eta ederki adierazita daude Erbitiko herritarrak zegokion unean bere zerbitzurako aukeratzen zituen poltsekin<sup>99</sup>.

## SAGUEN KONJURUA

Hiriberrin, nire berriemaileak esan zidan Bazkoko bigarren egunean –nahiz eta hau ezin duen zehazki baieztatu– Saguen erroga-tiba izenez ezagutua zena ateratzen zela. Bere helburua, soroan oso ugalduta zeuden saguak akabatzea zen.

Otoitza egin bitartean, apaizak soroak bedeinkatzen zituen, eta bertan bilduriko batek gurutzea zeramanari halaxe esan zion: «Gaur zomorroak akabatu beharrean, bizitza luzatuko diegu». Eta gurutzea zeramanak erantzun: «Tira, tira! Sinesmena eduki behar dugu»<sup>100</sup>.

## IMIZKOZ HERRISKAKO GIZON BATEN KONJURUA

Imizkozen, ekaitza zetorren egun batean, auzoko batek herriaren zaindaria den San Pedroren irudia hurbil dagoen muino batera eraman eta hala esan zuen:

«Gorraiz aldera!» Hau esanda, eguraldiak berehala egin zuen txarrera, baina euri hori ez zen konjurugilearen gustukoa eta beraz, makila batez txikitu egin zuen santuaren estatuaren beso bat.

«Gorraiz aldera» esapidea oso ezaguna da eskualde honetan, baina konjurugilearen haserrea ez zidaten Imizkora –gaur egun ia biztanlerik ez duen Nafarroako herriska– eginiko bisitaldian aipatu<sup>101</sup>.



Ardia eta arkumea

99. Erbitin (Basaburua): Miguel Iribarren Erburu, 73 urte, Txotola etxea. 1998ko abuztuak 30.

100. Artzin (Artzi bailara): Amalia Arbonies Etxamendi, 74 urte, Porcado etxea. 1998ko irailak 3.

101. Erron (Erroibar): Bruno Fernández Molero, 75 urte, eta María Josefa Orbaizeta Elizalde, 69 urte. 1998ko irailak 3.

## IRUROZKIKO APAIZAREN EXORTZISMOA

Irurozki herri nafarreko apaiza, Agoitzen jaioa, ekaitza bazetorrela eta, eliza atarira atera eta argi eta garbi egin zuen bere desioaren konjurua:

«Arrasa la Francia  
y la Italia también,  
y a Aoiz y a Irurozki  
déjalos con bien».

edo

«Suntsitu Frantzia  
eta Italia,  
baina Agoitz eta Irurozki  
onean utzi»<sup>102</sup>.

## EKAITZA KONJURUAREN MENDE

Mutiloako Liernia auzoan jakinarazi zidaten kanpotik etorritako apaize-tako batek konjurua egin zuela ekaitzaren itxura hartu zuen egun batean. Konjuru hark harria Donostialdera bidali zuen, bertan kalte handiak eginez. Nire berriemaileari –Lierniko gorabehera ezagutu zuen berriemaile– adierazi zioten nola eta zer gertatu zen, eta honek erantzun zien, beste batean ere konjurua behar denean eginez gero, ekaitzak itsasalderako bidea hartuko zuela<sup>103</sup>.

## TOLENTINOKO SAN NIKOLASEN OGITXOAK

Ondoren irakurri ahal izango duzuen aspaldiko portaera hau sartu ez sartu egon naiz. Niretzat exortzismo errituala da, berria gainera, ezezaguna alegia, Bizkaiko Elorriok San Agustin auzoan egiten zena.

Tolentinoko San Nikolas eguneko mezatan, irailaren 10ean, ogi batzuk bedeinkatzen zituzten, Tolentinoko San Nikolasen ogitxoak deituko diet nik, zortzi bider bost cm luze-zabalean eta zentimetro eta erdi lodi zirenak. Parrokiak berak ematen zituen eta ibaiak inguruko lurak ez hartzeko erabiltzen zituzten, ahalmen hori omen zuten. Legamiarik gabeko opilak ziren eta urte-tan Bittor Orbegozo nire berriemaile baten aitak egin zituen. Uholde bat gerta zitekeela-edo susmoa izaten zutenean, ibaitik gertuen zegoen lurzatiaren ertzean hirurogei bat cm-ko makila bat sartu, puntan ogitxo bedeinkatua jarri eta hantxe uzten zuten<sup>104</sup>.

---

102. Erron (Erroibar): aurreko erref.

103. Liernin (Mutiloako auzoa): María Tellería Imaz 82 urte, Serora etxea. 1998ko irailak 6.

104. Elorriok (Sanagustinetxebarriako auzoa): Juan Azcárate Orbegozo, 59 urte, eta Angel Orbegozo Azcárate, 72 urte. 1998ko irailak 11.